

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****ZIGOITIKO UDALA****2023ko aurrekontu orokorra behin betiko onestea**

Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatutakoarekin ados, eta 2023ko aurrekontu orokorra hasiera batez onesteko akordioaren aurka erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez, aipatutako aurrekontua behin betiko onetsiko da, eta kapituluaren laburpena honakoa da:

GASTU EGOERA

KAPITULUA	ZENBATEKOA
I. Langile-gastuak	696.809,71 euro
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	1.364.056,45 euro
III. Finantza-gastuak	1.400,00 euro
IV. Transferentzia arruntak	455.631,45 euro
V. Kreditu orokorra eta beste ezusteko batzuk	4.000,00 euro
VI. Inbertsio errealak	1.762.064,59 euro
VII. Kapital-transferentziak	177.000,00 euro
VIII. Finantza-aktiboak	17.000,00 euro
IX. Finantza-pasiboak	0,00 euro
Gastu-egoera guztira	4.477.962,20 euro

SARRERA EGOERA

KAPITULUA	ZENBATEKOA
I. Zerga zuzenak	1.112.076,00 euro
II. Zerga ez-zuzenak	110.000,00 euro
III. Tasak eta beste sarrera batzuk	231.622,02 euro
IV. Transferentzi arruntak	1.164.122,02 euro
V. Ondare-sarrerak	72.277,04 euro
VI. Inbertsio-errealak besterentzea	411.233,70 euro
VII. Kapital-transferentziak	1.364.591,42 euro
VIII. Finantza-aktiboak	12.000,00 euro
IX. Finantza-pasiboak	0,00 euro
Sarrera-egoera guztira	4.477.962,20 euro

Udal honen aurrekontu orokorra behin betiko onesteko akordio honen aurka zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke iragarki hau argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.

Aldi berean, eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikularekin eta Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 16. artikularekin bat etorriz, langileen plantilla eta udalak onetsitako lanpostuen zerrenda osoa argitaratzen da.

ERAKUNDEAREN PLANTILLA

I. ERANSKINA

1. FUNTZIONARIOAK.

1.1. Gaikuntza nazionalekoak.

A) Eskala: Idazkaritza-Kontu hartzaitza, plaza-kopuru: 1; taldea: A1/A2, titulazioa: graduoko edozein unibertsitate-titulu edo baliokide; hizkuntza-eskakizuna: 4, derrigortasun data: 2010eko martxoaren 4a; arduraldia: osoa; lanpostu-mailako osagarria: 30; berariazko osagarria: 26.065,18 euro; hornitzeko sistema: lehiaketa bidez; egoera: aktiboan.

1.2. Administrazio Orokorrekoak.

A) Azpieskala: Administrazio Orokorreko Teknikaria.

1. Izena: Administrazio Orokorreko Teknikaria, plaza kopurua: 1; taldea: A1, titulazioa: litzentziatura edo gradua zuzenbidean, politika-, ekonomia- edo enpresa-zientzietan, merkataritzako intendentean edo aktuarioan, edo baliokidea; hizkuntza-eskakizuna: 3, derrigortasun data: 2009ko urtarrilaren 1a; arduraldia: osoa; lanpostu-mailako osagarria: 26; berariazko osagarria: 18.117,37 euro; hornitzeko sistema: lehiaketa; egoera: hutsik zerbitzu-eginkizun bidez beteta.

B) Azpieskala: Administraria.

1. Izena: Administraria; plaza kopurua: 1; C1 taldea; titulazioa: batxilergo- edo teknikari-titulu; hizkuntza-eskakizuna: 2, derrigortasun data: 2022ko maiatzaren 23a; arduraldia: osoa; lanpostu mailako osagarria: 22; berariazko osagarria: 18.485,36 euro gehi 2.266,54 euro diruzaina izateagatik; hornitzeko modua: lehiaketa; egoera: aktiboan.

C) Laguntzaile Azpieskala.

1. Izena: Administrari-laguntzailea 1; plaza kopurua: 1; taldea: C2; titulazioa: eskola derrigorrezko bigarren hezkuntzan graduatua; hizkuntza-eskakizuna: 2; derrigortasun data: 1998ko abenduaren 29a; arduraldia: osoa; lanpostu mailako osagarria: 19; berariazko osagarria: 16.810,77 euro; hornitzeko modua: lehiaketa; egoera: aktiboan.

2. Izena: Administrari-laguntzailea 2; plaza kopurua: 1; taldea: C2; titulazioa: derrigorrezko bigarren hezkuntzan graduatua; hizkuntza-eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2003ko urtarrilaren 1a; arduraldia: osoa; lanpostu mailako osagarria: 19; berariazko osagarria: 12.301,29 euro; hornitzeko modua: lehiaketa; egoera: aktiboan, jabearen zerbitzu-eginkizunak betetzen.

3. Izena: Administrari-laguntzailea jendearen harrera egiteko; plaza kopurua: 1; taldea: C2; titulazioa: derrigorrezko bigarren hezkuntzan graduatua; hizkuntza-eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2009ko urtarrilaren 1a; arduraldia: osoa; lanpostu mailako osagarria: 19; berariazko osagarria: 12.158,10 euro hornitzeko modua: lehiaketa; egoera: aktiboan.

D) Mendeko Azpieskala.

1. Izena: Udal Aguazila; plaza kopurua: 1; taldea: lanbide taldea; titulu: eskola-graduatua; hizkuntza-eskakizuna: 2, derrigortasun data: 2022ko maiatzaren 23a; arduraldia: osoa; lanpostu mailako osagarria: 16; berariazko osagarria: 11.461,46 euro; hornitzeko modua: lehiaketa; egoera: aktiboan.

1.3. Administrazio berezikoa.

1. Izendapena: Arkitektoa – Hirigintza Saileko Burua; lanpostu-kopurua: 1; taldea: A1; titulazioa: arkitekto-titulua edo lanbide honetan jarduteko gaitzen duen unibertsitate-titulu ofiziala; hizkuntza-eskakizuna: 3, derrigortasun-datarik gabe; dedikazioa: ehuneko 80; lanpostu-mailako osagarria: 19.603,94 euro; betetzeko modua: lehiaketa; egoera: lanpostu hutsa, lan-kontratu mugagabeko langile ez-finkoarekin.

2. Izena: arkitekto teknikoa; lanpostu-kopurua: 1; taldea: A2; titulazioa: arkitekto teknikoaren titulua edo lanbide honetan jarduteko gaitzen duen unibertsitate-titulazio ofiziala; hizkuntza-eskakizuna: 3, derrigortasun-datarik gabe; dedikazioa: ehuneko 70; lanpostu-mailako osagarria: 12.461,85 euro; betetzeko modua: lehiaketa; egoera: lanpostu hutsa, lan-kontratu mugagabeko langile ez-finkoarekin.

2. LAN-KONTRATUDUNAK.

Eskala berezia:

Mantenimenduko langilea: plaza kopurua: 1; taldea: lanbide taldea; titulazioa: bat ere ez; hizkuntza-eskakizuna: 2, derrigortasun data: 2022ko maiatzaren 23an; arduraldia: osoa; lanpostu mailako osagarria: 12; berariazko osagarria: 13.178,45 euro; hornitzeko modua: lehiaketa; egoera: hutsik, aldi baterako langilearen bidez beteta.

II. ERANSKINA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen, apirilaren 2koaren, 75.5. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, arduraldi osoa eta partziala duten kargudunen ordainsariei buruzko akordio osoa argitaratzen da, bai eta kalte-ordainak eta udalbatzako kideek bilkuretara joateagatik jasotzen dutena ere.

UDALEKOEN ORDAINAK ETA ESLEIPENAK

Alkatetza (ehuneko 100eko arduraldia): urteko ordainsari gordina 47.000,00 euro.

Lehenengo Alkatetzaordekoa eta euskara, kultura, hezkuntza, ingurumena, komunikazioa eta bizikidetzaren arloetako Zinegotzigoia (ehuneko 55eko arduraldia): urteko ordainsari gordina 23.000,00 euro.

KALTE-ORDAINAK

Zinegotzien osoko bilkuretara eta batzordeetara joateagatik: 40,00 euro.

Zinegotzien beste organo elkargokideen bilkuretara joateagatik: 40,00 euro.

Ondategin, 2023ko urtarrilaren 25ean

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA